

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KANPEZUKO UDALA

Behin betiko onespena ematea eraikinen zaharberitzearen ordenantza aldatzeari

Udalbatzak, 2018ko maiatzaren 8ko ohiko osoko bilkuran, behin-behineko onespena eman zion eraikinen zaharberitzearen ordenantzaren aldatzeari. Aldaketa horri behin-behineko onespena ematen dion erabakia jendaurrean egon den bitartean, haren aurkako erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin-behineko erabaki hori behin betiko erabaki bihurtu da, uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren, toki ogasunak arautzen dituenaren, 16.3 artikulua eta apirilaren 2ko 7/1985 Legearen, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenaren, 49.c) artikulua xedatutakoarekin bat etorritik.

Foru arau horrek 16.4 artikulua eta TAOLek 70.2 artikulua aurreikusitakoa betez, oso-osorik ematen dira argitara aldateten testuak:

"4. artikulua

Ordenantza honen aplikazio esparrua da Kanpezuko udalerrian dauden eraikinak birgaitu, mantendu eta hobetzea, baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Eraikinen ikuskapen tekniko (EIT) batean hautemandako akatsak zuzentzeko egokitzapen obrak egin beharra duten eraikinak izatea.

b) Proposatzen den erabilerarako mugarik ez izatea, ez eta hirigintza antolamendutik kanpoko kalifikazioa edukitzea ere."

Santikurutze Kanpezu, 2018ko uztailaren 16a

Alkatea

IBERNALO BASTERRA TXASKO